



Hernialdeko Udala

IRAGARKIA

GAIA: Hernialdeko Udaleko zerbitzu anitzeko langile lanpostu bat lehiaketa oposizio bidez hornitzeko hautaketa prozesua (2022/06/10ko GAO, 110. Zk.)

Goian aipatu hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileak, 2023ko maiatzaren 16an egindako bileran, erabaki hau hartu du:

1- Lehenengo ariketa gainditu duten izangaiei jakinaraztea oposizio aldiko bigarren ariketa noiz izango den:

Eguna: 2023ko uztailaren 27a

Ordua: 9:00 (10 minutu lehenago aurkeztu)

Lekua: Irurako biltegian, Peio Arreseigor Kalea

2.- Bigarren ariketaren inguruan jakinarazten zaie izangaiei, ariketa honetan 3 proba praktiko egingo direla, zerbitzu anitzetako langilearen lanpostua betetzeko berezko eta ezinbesteko trebetasunekin lotutakoak.

Ariketak 4 ordu inguruko iraupena izango du.

Ariketa honetan 50 puntu emango dira gehienez, eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira, prozesutik kanpo ez geratzeko.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute, edo, bestela, beren nortasuna behar bezala egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizial. **izangalek erabakitako lekuan egon beharko dute ezarritako ordua balno hamar minutu lehenago.**

Ariketa honetako hirugarren froga praktikoa egiteko ezinbestekoa da makinak erabiltzea, hala, hautagaiak zikindu daitezkeen oinetakoak, oinak babesteko oinetakoak (segurtasun botak) eta arropa eroso eta egokiarekin aurkeztu beharko dira. Boligrafo beltza edo urdina erabili behar da.

Hernialden, 2023ko maiatzaren 16an
Epaimahaiko idazkariak,

Izp.: Cristina Fernandez Izaguirre